873

AGINDUA, 2005eko otsailaren 23koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeko dena.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko xedapen gehigarrietatik laugarrenak zehazten duenez «Lege honetan ohartemandako zenbatekoak lehenagotik zehaztutako pezeta-kopuruei buruzkoak dira», eta Ogasun Sailari dagokio zenbateko horiek eguneratzea, hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan; eta hori, ekainaren 19ko 15/1998 Legez emandako erredakzioaren arabera.

Bestalde, eta egoera berezi lez hartuta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 151. artikuluaren 3. paragrafoan xedatzen denez, hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntza publikoa ematea, hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan eguneratuko da. Ekainaren 19ko 15/1998 Legez emandako erredakzio berriaren arabera egingo da hori.

Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egin denez, aurreko paragrafoetan jasotzen den legezko manua bete egin behar da.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengoa.–*** Hauteskundeetako gastuei buruzko dirulaguntza publikoak izanik, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 151. artikuluan jasotako zenbatekoak, horrela geratzen dira:

1.– 1. paragrafoaren a) letrari dagokiona: hogeita bat mila zazpiehun eta laurogeita hamar kakotx hirurogeita hamalau euro (21.790,74 euro).

2.– 1. paragrafoaren b) letrari dagokiona: (zero kakotx hirurogeita hamahiru euro (0,73 euro).

3.– 1. paragrafoaren c) letrari dagokiona: (hogeita hamasei mila hirurehun eta hamazazpi kakotx laurogeita bederatzi euro (36.317,89 euro).

4.– 2. paragrafoaren a) letrari dagokiona: (zero kakotx hemezortzi euro (0,18 euro).

***Bigarrena.–*** Aurreko paragrafoan jaso ez eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako beste zenbateko guztiek, ehuneko hirurogeita bederatzi kakotx bederatziko igoera izango dute (%69,9).

873

ORDEN de 23 de febrero de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, sobre actualización de cuantías contenidas en la Ley 5/1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento Vasco.

La Disposición Adicional Cuarta de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento Vasco, establece que las cuantías previstas en dicha Ley se refieren a pesetas constantes, correspondiendo al Departamento de Hacienda la actualización de las mismas en los siete días siguientes a la convocatoria de elecciones, de conformidad a la redacción dada por la Ley 15/1998, de 19 de junio.

Por su parte, y como situación particularizada, el apartado 3 del artículo 151 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento Vasco, de conformidad a la redacción dada por la Ley 15/1998, de 19 de junio, dispone que la subvención pública de gastos electorales será objeto de actualización en los siete días siguientes a la convocatoria de elecciones.

Dado que se ha procedido a la disolución del Parlamento Vasco y a la convocatoria de elecciones, procede dar cumplimiento a la prescripción legal contenida en los párrafos precedentes.

En virtud de lo expuesto,

DISPONGO:

***Primero.–*** Las cuantías contenidas en el artículo 151 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento Vasco y correspondientes a la subvención pública de gastos electorales quedan establecidas en:

1.– La correspondiente a la letra a) del apartado 1: veintiún mil setecientos noventa coma setenta y cuatro euros (21.790,74 euros).

2.– La correspondiente a la letra b) del apartado 1: cero coma setenta y tres euros (0,73 euros).

3.– La correspondiente a la letra c) del apartado 1: treinta y seis mil trescientos diecisiete coma ochenta y nueve euros (36.317,89 euros).

4.– La correspondiente a la letra a) del apartado 2: cero coma dieciocho euros (0,18 euros).

***Segundo.–*** El resto de las cuantías contenidas en la Ley 5/1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento Vasco, no contenidas en el apartado anterior, se elevan en un sesenta y nueve coma nueve por ciento (69,9%).

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 23a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero de 2005.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

**874**

114/2005 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, María Victoria Cinto Lapuente andrea Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente izendatzen duena.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 2005eko urtarrilaren 26ko batzarrean proposamena egin du, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 127.2. eta 337. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

María Victoria Cinto Lapuente andrea Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente izendatzen dut, aurretik izendatua zegoen kargu bereko legezko epea iraungi zenez, kargua hutsik zegoelako.

Madril, 2005eko urtarrilaren 31.

JUAN CARLOS E.

Justizia ministroa,
JUAN FERNANDO LÓPEZ AGUILAR.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

**874**

REAL DECRETO 114/2005, de 31 de enero, por el que se nombra Presidenta de la Audiencia Provincial de Guipúzcoa a Doña María Victoria Cinto Lapuente.

A propuesta del Pleno del Consejo General del Poder Judicial, en su reunión de 26 de enero de 2005, y de conformidad con lo establecido en los artículos 127.2 y 337 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

Vengo en nombrar Presidenta de la Audiencia Provincial de Guipúzcoa a Doña María Victoria Cinto Lapuente, en provisión de la vacante producida por expiración del plazo legal por el que había sido nombrada con anterioridad para el mismo cargo.

Dado en Madrid, a 31 de enero de 2005.

JUAN CARLOS R.

El Ministro de Justicia,
JUAN FERNANDO LÓPEZ AGUILAR.